

Orrez gain. txau ez ditzan  
eguzki galdeak,  
ureztatuak ditut  
landare gazteak.

Ale asko dakarren  
igali zugatzai  
alperreko kimuak  
kentzen diet noznai.

Bai eta ekin diot  
maatsak sulpatatzen;  
udaran txakoliña  
on da zurrupatzen.

Gorde daidan laztanki  
maasti barrutia,  
eta sasoiz damakit  
edari gorria.

Ez dagokit ondo, ez,  
beso biak gurutz,  
ezeri lotu gabe  
izatea alde-utz.

## **NERE ETXEA**

*Euskal etxeak badu garrantzirik. Bere betebearrak ditu, eta eskubideak. Giza-aterpe ezezik, abeltoki, tantegi ta abar ere badugu bera. Sendi osoa dego loturik, korapillo samurrez, odol berroz lotuak noski. Onek zaindu ta osatzen du euskaldun erraz, indar ta kernenez ornitua. Nik ere badut nere etxea, badut nere sendia. misterioz inguratua.*

**Doiñu:** «Txakur gorri txiki bat,..».

Nere aitaren aitak emen zun oillolur,  
ta jazo ala jazo ez naizu ni bildur.

Gure etxe ta mendiak santuak dirade,  
lanerako dauzkat nik aitzur eta golde.

Ementxe dut gurdia, lankai goresgarri,  
ementxe baita daukat iru bei- buztarri.

Ementxe dut etxea, soroz esitua,  
mendi oiñean datza ene sordekua.

Zugaitzak egutera, ertz askoz nasiak,  
kanta-tokia dute sarriro txoriak.

Banaz dagola ere lei askoren toki,  
kulturaz ta oroitzez ez du zaina txiki.

Gure etxea, asaba zarren babesleku,  
edu onetan zuten aintziña osatu.

Lenen bee-oiñean du zuzenezko zoko,  
atzetik luzeago aurretikan baiño.

Teillatuan ditu bi ixurki txit berdin,  
aintzin-gibel eta albo eguzkitan urdin.

Ataria, eskaratza, lo-gelak aurrean,  
leio zabaldun kortak bereix atzean.

Goian ditut oindio gertu ta egokiak  
belar-sapai, ganbara eta aletegiak.

Teilla kiskortua du gaia estalduaz,  
uso-kabi ematen duelarik ausaz.

Aurrekaldean dauzka zurezko besoak,  
antzetsu elkarrekin gurutzan eoiak.

Aintziñakoa noski egikera auxe,  
kanpotik dirudinez omen duzu zarxe.

Muiño ertzean dago aizetik gordean,  
lenak giroa begizten zuten egitean.

Egoitz au ez da, soilki denontzat aterpe,  
bertan dira lan-tresna, gizaseme ta abere.

Etxe ta lur gabe ez da ezer baserria;  
eder dirudi, b<sup>^</sup>iñi, oiekin jantzia.

Soro, landalde ta abar, geranok loturik,  
ementxe bizi gera aspaldia danik.

Seaska eta aterpe, otoitz leku, obi,  
lena, oraiña, gero dira elkar josi.

Onek ikurtzen dizu euskal askazia,  
asaben arnas, sendi aoz ao utzia.

Euskal izate ardatz semeengan nortua,  
gure odol-kaikuan luzez oretua.

Betebear t'eskubidea, gurasoak zaitu,  
etxe ta etxeoak, erentzi lez duzu.

Soro-landaz bear naiz geldiro saiatu,  
illak be bear ditut adei aundiz artu.

Eliz bezela bait da gure sorlekua,  
sukaldeko sua dut txit sagaratua.

Bi ate-zangoetan Doniane goizez  
ereiñotza dut jartzen, orlegi ta ezez.

Kardulatzan lorea erdiko atean  
zintzilika dagokit izenta epean,

Aizkora ta igitai etsai onak dira  
ortze aurka atarian gorantza begira.

Gabon gaueko enbor, tantai beso done,  
arriskutik zaitzeko goitar ezaupide.

Aurrekoen itzalak emen dabilzkigu,  
aien arnas ta gogo ementxe ditugu.

Ori esan oi digu amonak sarriro,  
eta aren itzak du beti egi-giro.

Odol-geldi naukazu, ene etxe maitea,  
mintza nai, mintza ezin, gogartez betea.

Esker gaiztoentzat ez duzu ezer onik,  
emen ez nuke ikus nai oien artekorik.

Maitagarri dirudi kirkillak kantaka,  
ni ere ez nadin iñoiz erre zu goraka.

